

ETXAURI
Udal aretoak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Etxauriko Udalak, 2017ko martxoaren 22an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen udal aretoen erabilera arautzen duen udal ordenantza. Iragarkia 2017ko 75. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 19an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu gabe, ordenantza behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Etxaurin, 2017ko ekainaren 12an.–Alkatea, Idoia Aritzala Etxarren.

**UDAL ORDENANTZA, ETXAURIKO UDALAREN ARETOEN ERABILERA ETA LAGAPENA
ARAUTZEN DITUENA**

Udal aretoek erabilera eta zerbitzu publikoa dute. Herritarren entitateek, taldeek, kolektiboek eta erakundeek erabiltzen ahal dituzten elementuak dituzte, Toki Entitateen Ondasunen gaineko 1986ko ekainaren 13ko Erregelamenduaren 4. artikuluan arabera. Legezko testu horren 74.2 artikulua xedatzen du zerbitzu publikoko ondasunak erabiltzeko, toki entitateen zerbitzuen gaineko erregelamenduaren arauei jarraitu beharko zaiela. 33. artikuluan ezartzen da toki korporazioek zehaztuko dituztela, edozein zerbitzu arautzean, zerbitzu egiteko moduak eta erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak.

Gero batean udal aretoak erabiltzeko erregelamendu orokor bat egiten ahal bada ere, une hauetan bidezkoa da prestatzea horien erabilera arautuko duena.

Arau honen xedea da Etxauriko Udalaren erabilera anitzeko aretoak eskatu eta erabiltzeko baldintzak arautzea, erregelamendu honetako arauari jarraikiz.

1. artikulua. Aretoak erabiltzean, hona hemen zein diren lehentasuna duten xedek:

a) Etxauriko Udalaren kultur, gizarte eta kirol programazioak lehentasun osoa izanen du.

b) Etxauriko entitate eta taldeek eskatutako jarduerak.

c) Etxauribarreko entitate eta taldeek eskatutako jarduerak.

d) Kontuan hartzen azkenak izanen dira udalerrikoak ez diren entitate, elkarte, talde edo kolektiboek egiten dituzten eskaerak.

2. artikulua. Eskaerak: ordenantza honen I. eranskinetako ereduari jarraituko diote. Etxauriko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiliz.

3. artikulua. Eskaera egiteko epea: aldeztu aurreko hamar egun naturalekoa izanen da, idatziz behar bezala justifikaturiko larrialdiko kasuetan izan ezik.

4. artikulua. Giltza: aretoaren erabilera onartuta, giltza jasoko da eta, aldi berean, 10 euroko fidantza ordainduko da. Jarduera bukatu ondoren, 3 eguneko epean itzuliko da giltza, eta utzitako fidantza berreskuratuko da.

5. artikulua. Betebeharrak:

–Entitate, pertsona edo talde eskatzaileek jarduerak eta funtzionamendu arauak errespetatu behar dituzte, bai eta instalazioak eta ekipoak ere. Arau horiek urratzeak edo ez betetzeak ekartzen ahalko du jarduerak egiteko lortutako baimena kolpetik bertan behera gelditzea.

–Eskatzaileek ordena mantentzeko eta jarduera behar bezala gauzatzeko ardura dute, eta arazo edo kalteen erantzuleak izanen dira.

–Lokala garbi mantentzea.

–Instalazioen erabilera okerraren ondoriozko kalteen erantzule izatea.

–Berdintasunaren eta genero, arraza, ideologia eta sexu orientazioan oinarritutako bazterkeria ezaren printzipioak ez urratzea.

6. artikulua. Tarifak: ordenantza honetan ezarritako prezioak pagatuko zaizkio Udalarari giltza jasotzen denean.

1. tarifa: irabazi-asmoa duten elkarte, entitate, erakunde eta norbanakoak:

Erabilera anitzeko gelak:

ORDU 1	JARDUNALDI ERDIA (gehienez ere 4 ordu)	JARDUNALDI OSOA (gehienez ere 8 ordu)
14,00 euro	28,00 euro	50,00 euro

2. tarifa: irabazi-asmorik gabeko elkarte, entitate, erakunde eta norbanakoak, egoitza soziala Etxauritik kanpo dutenak:

Erabilera anitzeko gelak:

ORDU 1	JARDUNALDI ERDIA (gehienez ere 4 ordu)	JARDUNALDI OSOA (gehienez ere 8 ordu)
7,00 euro	14,00 euro	25,00 euro

3. tarifa: irabazi-asmorik gabeko elkarte, entitate, erakunde eta norbanakoak, Etxaurin erroldatuak edo egoitza soziala Etxaurin dutenak:

Erabilera anitzeko gelak:

ORDU 1	JARDUNALDI ERDIA (gehienez ere 4 ordu)	JARDUNALDI OSOA (gehienez ere 8 ordu)
Kosturik gabe		

7. artikulua. Egun eta ordu bererako eskaerak: bi eskaerak data eta ordutegietan bat egiten badute, lehenago aurkeztu dena nagusituko da. Hala ere, eta salbuespenez, hala eskatzen bada, Etxauriko Udalak erabakitzen ahalko du zer ekitaldik duen lehentasuna aldi bererako proposatu direnen artean.

8. artikulua. Aretoak erabiltzeko hitzarmenak: Udalak aretoak erabiltzeko hitzarmenak sina ditzake, komenigarritzat jotzen duenean.

I. ERANSKINA

[Eskabidea](#) (PDFa).

Iragarkiaren kodea: L1707498